

XVI GAZTE ASTEAREN KARTEL LEHIAKETA.

Azken urteetan egin ohi izan dugun bezala, "Gazte Astea" antolatu nahian gabilta. Honetarako **zuen partaidetza** ezinbestekoa izango dugu.

Gazte Astea antolatzeko Gabon opor garaia aprobetxatuko dugu, jai egun bereziak utziz beste egunetan ekintza ezberdinak antolatuz. Hau da; **URTARRILAREN 2, 3, 4 eta 5** egunetan, astelehenetik osteguna bitartean.

Gazte Astearen lehen ekintza proposamen gisa **KARTEL LEHIAKETA** aurkezten dizugu. Hemen dituzu bertan parte hartzeko betebeharreko oinarriak.

OINARRIAK

- + **Partehartzaileak;** 12-17 urte bitarteko gazteek parte har dezakete (DBH1-DBH4 ikasleak)
- + **Gaia:** "Artxamendi Gazte Topalekua" (Nolakoa izan behar du zuretzat topalekua?.)
- + **Formatoa;** Diseinuek DIN-4 orri baten erdia izango da, luzetaka hartuta. 29cm x 10 cm. Neurria izan behar du orriak. Marraskia bertikalean egin beharko da, goitik behera alegia. Lanak txuri beltzean, nahiz koloretan eginak eta paperean, Cdan, edo pen-driven aurkeztu daitezke. Lana egilearen datu pertsonalak, ikastetxea eta ikas maila atzean jartzen dituela aurkeztuko da, Gazte Informazio Zerbitzuan (GIZ).
- + **Non eta Noiz aurkeztu;** Lana egileak aurkeztu dezake edo helbide honetara igorri dezake; Gazte Informazio Bulegoa, Aita Madinabeitia z/g, Elkargune eraikina. **Lanak aurkezteko epea; 2017ko azaroak 28** (Ordutegia; Astelehenetik ostiralera, 16:30etatik 20:00etara). Azkoitiko Udalak ez du bere gain hartzen diseinuak bidean galdu edo hausturaren ardura.
- + **Epaimahaia;** Azkoitiko Udaleko Gazteria zinegotzia, Gazteria Teknikaria, eta Gazte Informazio Bulegoko arduraduna.
- + **Sariak;**

Kategori bakarra: DBH1etik DBH4ra; 80€ko eroste txartel bat. Sari horrez gain Gazte Asteako kartel eta eskuorriaren azala gisa erabiliko da.

- Eroste txartel hauek kirol arropa edo tresnetaz trukatzeko izango dira.